XEDAPEN OROKORRAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

1573

AGINDUA, 2013ko martxoaren 6koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, «Auzolandegiak» egitasmoan izena emateko kuotaren prezio publikoa ezartzekoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei Buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren 33. artikuluak ematen dizkidan eskumenez baliatuz, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta horren erakunde autonomoek prezio publikoen bidez ordaindu ditzaketen zerbitzu eta jardunak zehazten dituen irailaren 28ko 249/2010 Dekretuaren arabera, dagokion espedienteari Ogasun eta Finantza Sailak baiezko irizpena eman eta gero, hauxe

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Auzolandegiak egitasmoan parte hartzeko izen-emate kuotaren prezio publikoa 90 eurokoa da.

AZKEN XEDAPENA.– Honako agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 6a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.